

EROSKI Fundazioak 2.000 euroko lehen ekarpen bat egin du

**EROSKI-K ETA JANBIDE BASAURIKO LAGUNTZA
ELKARTEAK HITZARMEN BAT SINATU DUTE
ELKARREKIN GIZARTE JARDUERAK LANTZEKO**

- **Gaurko ekarpena apalak erosteko erabiliko dute, dohaintzan emandako produktuak edukitzen dituzten biltegirako**

Basauri, 2017ko urriaren 9a.- [EROSKI Fundazio](#)ko zuzendari Alejandro Martinez Berriochoak eta Janbide Basauriko Laguntza Elkarteko presidente Josu Zorriketak sinatu dute gizarte jarduerak elkarrekin lantzeko hitzarmena. Helburua da elkartasun laguntza ematea, Basauriko elkarteak premian direnei lagun diezaien. Basauriko alkatea, Andoni Busquet, bertan izan da hitzarmena sinatu dutenean.

EROSKI Fundazioak 2.000 euroko lehen ekarpen bat egin du, eta horrela abiatu dute lankidetzak. Hasierako ekarpen hori apalak erosteko erabiliko dute, dohaintzak edukitzen dituzten produktuen biltegirako. *"EROSKI Fundazioaren helburuetan dago elkartasuna erakustea eta laguntza sustatzea. Hori dela eta, ekimen propioz edo hitzarmenen bitartez jarduten gara, gaur bezala, gizarteko hainbat erakunde, elkarte eta GKEekin batera, laguntza handia ematen baitiete gure ingurunean premiarik handiena dutenei"*, esan du EROSKI Fundazioko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoa.

Janbide Basauriko Laguntza Elkarteko presidentek esan duenez, *"gure elkartearentzat funtsezkoa da EROSKI Fundazioak gaur emandako laguntza hau. Zergatik eta, alde batetik, ekarpen honekin biltegi sistema bat ipiniko dugulako, dohaintzan jasotzen ditugun produktuak txukunago edukitzeko eta hobeki kontserbatuak egoteko. Gainera, EROSKI Fundazioak borondate handia erakutsi du gure jardueretan laguntzeko eta parte hartzeko; eta hori oso euskarri sendoa da guretzat"*.

Gizarte bidezkoago eta kohesionatuago baten alde aritzea eta osasun kalitate eta ongizate hobekak erdiestea da EROSKIrentzat, kooperatiba den aldetik, haren xedeetako bat. Jarduera horren zati handi bat EROSKI Fundazioak lantzen du, hainbat ekimenen bidez; horietako asko "elikadura elkartasunerako" proiektuak dira. Kooperatibak lankidetzan dihardu Espainia osoan janaria biltzeaz arduratzen diren ehun bat gizarte erakunderekin. Horren erakusgarri da joan deneko hogeitun urtean elkarrekin dabilzala EROSKI eta Elikagai Bankuak, dendetan egindako janari

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



bilketekin nahiz *Ez alferrik galdu* programarekin. Programa horren medioz, janari soberakinak elkertasunez banatzen laguntzen die kooperatibak Elikagai Bankuei. Hala berean, lankidetzaz hitzarmen bat du Bizkaiko Caritasekin: dendetan trukatzeko balio duten elikadura-txartelak emanez, bazterketa arriskuan eta premian direnei laguntzen die.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)